


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

**Letren Fakultatea**

## **HISTORIAKO GRADUA**

IKASTURTEA: 2016-2017

# **GOI ERDI AROKO JOKABIDE SEXUALEN PRESENTZIA PENITENTZIAL HISPANIKOETAN**

EGILEA: Markos Sánchez González

ZUZENDARIA: Juan José Larrea Conde

ERDI AROAREN, ARO BERRIAREN ETA AMERIKAREN HISTORIA SAILA

## AURKIBIDEA

<u>1. Gradu Amaierako Lanaren laburpena</u> .....	2. orr
<u>2. Gaiaren planteamendua</u> .....	2-6. orr
<u>2.1. Gaiaren egoera orokorra</u> .....	2-3. orr
<u>2.2. Liburu penitentzialen ibilbide historikoa eta penitentzial motak</u> .....	3-6. orr
<u>3. Penitentzial hispanikoak</u> .....	6-11. orr
<u>3.1. Vigilaren penitentziala edo <i>Vigilatum</i></u> .....	6-7. orr
<u>3.2. Siloseko penitentziala edo <i>Silense</i></u> .....	7-8. orr
<u>3.3. Kordobako penitentziala edo <i>Cordubense</i></u> .....	8-10. orr
<u>3.4. Penitentzial hispanikoen arteko erlazioa</u> .....	10-11. orr
<u>4. Goi Erdi Aroko jokabide sexualen presentzia Penitentzial hispanikoetan</u> .....	11-24. orr
<u>4.1. Liburu penitentzialak sexualitatea ikertzeko baliabide moduan</u> .....	11-13. orr
<u>4.2. Penitentzial hispanikoetan islatzen diren jarrera sexualak</u> .....	13-24. orr
<u>5. Ondorioak</u> .....	24-25. orr
<u>6. Erreferentzia bibliografikoak</u> .....	26. orr

## 1. Gradu Amaierako Lanaren laburpena

Gradu Amaierako Lan honen helburua penitentzial hispanikoen posibilitateak kontutan hartuz Goi Erdi Aroko jokabide sexualetara hurbiltzean datza. Lanean zehar gure xedea penitentzial hispanikoetan agertutako adierazpen sexualen deskribapen bat eskaintzea izan denez, iturri hauen inguruko metodologiaren arazoetan oso azaletik baino ez gara sartu.

Lanaren lehen zatian liburu penitentzialen inguruko ezagutzaren egoera orokor bat aurkezten da garaian kokatzearen eta penitentzialen ibilbide historikoaren eta penitentzial moten inguruan mintzatuz gaiaren inguruan sintesi orokor bat eratzearen.

Bigarren zatian penitentzial hispanikoak aztertzen dira eta haien artean egon daitezkeen erlazioak aurkezten dira. Gaur egun Espainian kontserbatzen diren penitentzialak hiru dira: Vigilaren penitentziala edo *Vigilantum*, Siloseko penitentziala edo *Silense* eta Kordobako penitentziala edo *Cordubense*. Hiru penitentzialak IX-XI. mendeen artean konposatu ziren.

Hirugarren zatian lanaren funtsa agertzen da: alde batetik, baina oso labur, liburu penitentzialek sexualitatea ikertzerako orduan eman diezaguketen ekarpenaren inguruan eman den eztabaida planteatzen da eta bestetik penitentzial hispanikoetan jasotzen diren jokaera sexualak aurkezten dira. Gure lana laikoaren portamolde sexualetan zentratu dago. Hauek tratatzeko orduan, bi kategoria hartuko ditugu kontuan gure analisisian: bata praktika sexualei egiten die erreferentzia eta besteak praktika sexualen partaideen eta denboren zilegitasuna du ardatz.

## 2. Gaiaren planteamendua

### 2.1. Gaiaren egoera orokorra

Kristautasunaren historian ezagutzen dugun lehenengo erregimen penitentziala Antzinako penitentiarena izan zen. Penitentzia kanonikoa bezala ere ezagutzen den honek, VI. mendera arte iraun zuen. Garai honetan penitentziazko prozesua hiru fasetan garatzen zen: penitentzian sartzeko prozesua, pekamenezko garaia penitenteen ordenean

eta apezpikuarekin bake egitea. Pekamenezko denbora horretan zehar penitentea komunitatetik at bizitzen zen eta zenbait mortifikazio gauzatu behar zituen. Prozesu hau oinarriz publikoa zen. Penitentzia kanonikoaren ezaugarri nabarmenena bekatuen barkamen hori bizitzan behin bakarrik jaso ahal zela zen.<sup>1</sup>

Azken ezaugarri honek beste batzuekin batera erregimen hau progresiboki beste batek ordezkatzera eraman zuen. Erregimen berri hau penitentzia tarifatuarena izan zen eta kontinentean haren orokortzea VI. eta VII. mendeetan jazo zen misiolari irlandar eta anglosaxoien eskutik (horregatik penitentzia intsularra bezala ere ezagutzen da). Erregimen honek XII. eta XIII. mendeetaraino iraun zuen. Penitentzia tarifatuaren originaltasuna falten tasazio zehatzean oinarritu zen: bekatu bakoitzak penitentzia jakin bat zeukan. Tarifa penitentzial guzti hauek liburu penitentzialetan elaboratuak, esleituak eta kontserbatuak izan ziren. Penitentzia mota honetan aurrekoan ez bezala edonork lor zezakeen bere bekatuen barkamena eta, gainera, bizitzan behin baino gehiagotan egin zitekeen.<sup>2</sup>

## 2.2.Liburu penitentzialen ibilbide historikoa eta penitentzial motak

Liburu penitentzialek Britainiar Irletan dute jatorria. Penitentzialen lehenengo aldiak hasierako garaitik 650. urte ingurura arte irauten du eta hiru multzotan bereizten dira liburu penitentzialak: Galeseko penitentzialak edo bretoi erako penitentzialak, penitentzial irlandarrak edo zeltak eta Kolunbanoren ziklokoak. Galeseko edo bretoi erako penitentzialetan Meneviako Daviden zikloa (ziklo honen barruan Gildasen penitentziala dago) eta *Canones Wallici* nabarmentzen dira. Penitentzial irlandar edo zelten artean San Patriziori egotzitako bi sinodoak, *Canones Hibernenses* edota Finnian edo Vinnianen penitentziala aurkitzen ditugu. Azkenik Kolunbanoren zikloan Kolunbanoren penitentziala nabarmenduko litzateke.<sup>3</sup>

---

<sup>1</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels espagnols : Contribution à l'étude de la civilisation de l'Espagne chrétienne du haut Moyen Âge*. Aschendorff, Münster, XXII. orr.

<sup>2</sup> *Ibidem*, XXIII. orr.

<sup>3</sup> Vogel, C. eta Frantzen, A.J. (1978). *Les "Libri paenitentiales"*. Brepols, Turnhout, 60-66. orr.

Bigarren aldia VII. mendeko bigarren erdialdetik erreforma karolingiarraren garaira arte luzatzen da. Aldi honetan penitentzialen bi bloke nagusi bereizten dira: intsular motako penitentzialak eta penitentzial kontinentalak. Intsularren artean bi mota desberdintzen dira: estilo zaharrekoak eta estilo berrikoak. Estilo zaharrekoen artean Kummeanoren penitentziala, *Iudicia Theodori* edo Northumbriako dizipuluaren penitentziala aurkitu ditzakegu. Estilo berrikoen artean Bedaren penitentziala, Egbertena, *Bigotianum*-a edota pseudo-Egbertena aurkitzen dira. Penitentzial kontinentalen artean lau multzo ditugu. Lehengo multzoa Kolunbanoren idazkien eragineko penitentzialena da (besteak beste penitentzial burgundiarra edo Bobbiokoa). Bigarrena Kummeanoren eta Teodororen eragineko penitentzialak dira (*Excarpus Cummeani* edo Reimseko penitentziala multzo honetan kokatuko ziren). Hirugarrena hiru zatitan banatutako ildoak da eta Kolunbanoren zein Kummeanoren eta Teodororen eragineko penitentzialek osatzen dute (beste askoren artean *Poenitentiale Sangallense tripartitum*-a egongo zen). Azkenik laugarren multzoan geuk analizatuko ditugun penitentzial hispanikoak aurkitzen dira.<sup>4</sup>

Hirugarren aldia Châlon-sur-Saôneko kontziliotik X. mendera arte luzatzen da eta erreforma karolingiarraren garaia da. Erreforma karolingiarraren gidatzaileek Antzinako penitentziaren erregimenera itzultzeko nahia izan zuten penitentzia tarifatuaren erregimen berria begi txarrez ikusten zutelako. Liburu penitentzial ugari sutara jaurtiak izan ziren eta Châlon-sur-Saôneko kontzilioan horrela agertuko dira penitentzialen inguruan: “*repudiatis ac penitus eliminatis libellis quos paenitentiales vocant, quorum sunt certi errores incerti auctores*”<sup>5</sup>. Beraz karolingiarrek liburu penitentzialen okerrak eta autoreen zalantzagarritasuna salatzen zituzten. Erreforma honek arrakasta partzial bat lortu zuen eta gerorako banaketa bikoitz bat eragingo du praktika tarifatuan: falta larri publikoari penitentzia publikoa (Antzinakoa eta kanonikoa) aplikatuko zaion bitartean falta larri ezkutuari penitentzia sekretua, hots, tarifatua aplikatuko zaio. Dikotomia honek praktika intsularra IX. mendean errotuta zegoela egiaztatzen digu.<sup>6</sup> Hala eta guztiz ere garaian liburu penitentzial batzuk idatzi ziren. Hauetatik lehena Halitgare-ren penitentziala daukagu. Bere *De Paenitentia* liburuko seigarren liburuxka

---

<sup>4</sup> Vogel, C. eta Frantzen, A.J. (1978). *Les “Libri...”, 67-80. orr.*

<sup>5</sup> *Ibidem*, 40. orr.

<sup>6</sup> *Ibidem*, 40-41. orr.

da eta haren obra den arren Erromako penitentzial batetan oinarritu zela dio autoreak. Horregatik Schmitz-ek penitentzial honen jatorri erromatarra defendatu zuen eta *Poenitentiale Romanum* bezala izendatu zuen. Tesi hau Fournier-en lana eta gero baztertua izan zen.<sup>7</sup> Garai hartako beste penitentzial batzuk *Quadripartitus*-a, pseudo-Teodororena, Rabano Mauroren bi penitentzialak edo *Capitula Theodulphi* dira.<sup>8</sup>

Laugarren aldia IX. mendeko azkeneko urteetatik X. eta XI. mendeetara doa. Aldi honetan lau multzo daude. Multzo hauetatik lehena karolingioen ondorengo pseudo-erromatar erako penitentzialena da. Schmitz-en ustez jatorri pontifikalekoak eta beraz Erroma hirian egindakoak ziren. Fournier-en lanek tesi hau okerra zela erakutsi zuten eta dokumentu hauek jatorri frankokoak direla frogatu dute. Handik IX. mendean Penintsula Italikora iritsiko ziren.<sup>9</sup> Multzo honetan *Vallicellanus* penitentzialaren bertsio ezberdinak nabarmentzen dira. Bigarren multzoa karolingioen ondorengo anglosaxoi eragineko penitentzialak dira. Multzo honetan lau liburutan banatzen den pseudo-Egbertoren penitentziala aipa dezakegu. Hirugarren multzoan karolingioen osteko X. mendeko kolekzioetan aurkitzen diren liburu penitentzialen moduko idazkiak dira. Zentzu hertsia batetan ez dira liburu penitentzialak baizik eta penitentzia publikoaz diharduten lanak edo bilduma kanonikoak. X. mendean entzutetsuen egin zen bilduma Prümeko Reginon-ek 906 aldera idatzi zuena izan zen: *Libri duo de synodalibus causis et disciplinis ecclesiasticis*. Laugarren eta azken multzoa Wormseko Burchard-en obra penitentziala izango litzateke. Bere lanen artean aipagarriena bere *Decretum*-eko hemeretzigarren liburua izango litzateke, *Corrector sive medicus* bezala ezagutzen dena. Cyrille Vogel-en aburuz lan honek liburu penitentzialen garaiari itxiera emango zion, handik haurrera *Summae confessorum* edo *Summae de poenitentia* bezala ezagutzen den generoa agertuko delako.<sup>10</sup>

Bosgarren eta azken aldiak XI. mendeko amaieratik XII. mendeko erdialdera irauten du, konkretuki Erreforma Gregoriarraren garaitik 1142ko Grazianoren Dekretuaren garairaino. Garai honetan diziplina penitentziala ez da jada ezarpen eklesiastiko bat

---

<sup>7</sup> Vogel, C. eta Frantzen, A.J. (1978). *Les "Libri..."*, 80. orr.

<sup>8</sup> *Ibidem*, 81. orr.

<sup>9</sup> *Ibidem*, 84. orr.

<sup>10</sup> *Ibidem*, 88. orr.

soilik izango eta sistematikoki Teologiako gai nagusi bilakatuko da. Nahiz eta noizbehinka penitentsial berriak ekoiztuko diren, adierazpen berantiar hauek tasazio modu anakroniko baten testigantzak izango dira eta ez dute bat egingo garaian ezarrita dagoen praxi penitentsialarekin. Multzo honetan pseudo-Fulgbertoren penitentsiala edota penitentsial islandiarrak (Torlac Thorhallson-ena kasu) kokatzen dira.<sup>11</sup>

### 3. Penitentsial hispanikoak

Espainiako kasuan hiru penitentsial ezagutzen dira gaur egun: Vigilaren penitentsiala edo *Vigilanum*, Siloseko penitentsiala edo *Silense* eta Kordobako penitentsiala edo *Cordubense*.

#### 3.1. Vigilaren penitentsiala edo *Vigilanum*

Penitentsial hau *Codex Vigilanus*-eko 357r-358v folioetan eta *Codex Aemilianensis*-eko 359r-360v folioetan kokatzen da.<sup>12</sup> Penitentsial honetako 113 kanonak hamabost sailetan banatzen dira.<sup>13</sup>

Penitentsialaren iturriari dagokienean bost desberdintzen dira: beste liburu penitentsialak, *Hispana*, San Fruktuosoren erregela, *Liber Iudiciorum* eta jatorri ezezaguneko testuak. Liburu penitentsialei dagokienean kanonen konparaketa bat gauzatzean kanon hauen erdiak baino gehiagok (%56) *Excarpsus Cummeani*-n dute bere jatorria.<sup>14</sup> Penitentsial honetaz aparte Pariseko penitentsiala, Halitgare-ren *De Paenitentia* edota Reimseko penitentsiala aurkitzen ditugu. *Hispana*-ren kasuan bilduma hau zazpi kanon elaboratzeko baliatu zen. San Fruktuosoren erregela monastikotik bere bosgarren kapitulua laurogeita hamaseigarren kanona idazteko erabili zen. *Liber Iudiciorum*-aren aldetik 103. kanona konposatzeko haren zati txiki bat erabili

---

<sup>11</sup> Vogel, C. eta Frantzen, A.J. (1978). *Les "Libri..."*, 92-93. orr.

<sup>12</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 1. orr.

<sup>13</sup> *De ebrietate vel vomitu vel sacrificio, de bapitismo, de die dominico, de periurio, de falsitate, de furto, de ducto in captivitate, de dispoliatoribus martirium, de homicidiis, de interfectoribus mulieribus, de maleficiis, de cupidis et ceteris similibus, de fornicationibus pessimis, de incestis coniunctionibus et de diversis causis.*

<sup>14</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 2. orr.

zen. Azkenik jatorri ezezaguneko testuak kanonen %9 osatzeko maneiatu ziren.<sup>15</sup> Oro har penitentzial hau lan motz bat bezala aurkezten zaigu, oinarrizkoenera murriztua eta lan ugari kontsultatu dituen konpilatzaile bat idazle duelarik.

Vigilaren penitentzialaren datari dagokionez, jakina denez penitentzial hau bi eskuizkriburen bitartez iritsi zaigu geure egunetara: *Codex Vigilanus* eta *Codex Aemilianensis*. Bi eskuizkribu hauek dataturik daudenez penitentzialaren *terminus ante quem*-a ezartzea erraza da. Penitentzial hau noiz izan zen ekoitzia jakiteko autoreak baliatutako lan berrienari erreparatu beharko zaio. Kasu honetan Halitgare-ren *De Paenitentia* da eta Halitgare Cambraiko apezpiku bezala 817tik 830era jardun zuenez *Vigilanus*-a IX. mendeko lehen erdiaren bukaerara idatzia izan zela hausnartzen du Bezler-ek.<sup>16</sup>

### 3.2. Siloseko penitentziala edo *Silense*

Siloseko penitentziala Silosen kontserbatutako homiliario baten azkeneko folioetan (309r-324v) kokatzen da. *Vigilanus*-ean ez bezala sarrera ez dute katalogoko lehen kanonek osatzen baizik eta hamabost kanoneko kapitulazio batek betetzen du funtzio hori. Kapitulazio honetan 261 kanonak bekatuen lista batetan aurkezten zaizkigu.<sup>17</sup> Kapitulazio honi bekatuen barkamena lortzeko jardunen lista batek (*remissiones*) jarraitzen dio. IV. eta V. mendeen artean bizi izan zen *Johannes Cassianus*-en eskema eredutzat erabiliz Siloseko penitentzialak bere hamabi jardueretako lista *Cassianus*-en ordena aldatuz gauzatzen du. Hamabi jarduera horiek hauek dira:

Prima itaque est remissio quam bapuzamur in aqua, karitatis adfectus, elemosinarum fructus, perfusio lacrimarum, criminum confessio, afflictio cordis et corporis,

---

<sup>15</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 3. orr.

<sup>16</sup> *Ibidem*, 8.orr.

<sup>17</sup> *Ibidem*, 9. orr. *De ebrietate vel evomitum, de sacrificio et perceptione eius, de bapuzamento et opere dominico, de periurio et falsario, de furto et incendio atque violato, de diversis homicidiis, de observationibus sacrilegii, de cupidis et aliis similibus, de diversis fornicationibus, de incestis coniunctionibus, de diversis causis penitentium, de ciborum vel carniarum editione, de temporibus ieiuniorum generalium, de ieiunio diei vel quadragesimae et de ieiunio annuali et heremitarum.*



abrenuntiatio vitiorum, intercessio sanctorum, misericordia et meritu fidei, conversio et salus aliorum, indulgentia et remissio devitorum et passio martirii.<sup>18</sup>

Penitentzialaren iturriei dagokienean beste liburu penitentzialen kasuan bezala, beste behin *Excarsus Cummeani*-a da kanonen gehiengoaren jatorria (%42).<sup>19</sup> Honetaz aparte iturri bezala pseudo-Egbertoren konfetsionala, Teodororen penitentziala edota Reimseko penitentziala aurki ditzakegu. *Hispana*-ren kasuan kanonen %27ak iturri hau baliatzen du oinarri moduan. Liturgia mozarabiarraren kasuan (liturgia bisigotiarra edo hispanikoa bezala ere ezaguna) bost kanonek bakarrik islatzen dituzte liturgia honen partikularitasunak. San Fruktuosoren erregelari dagokionez, *Vigilanum*-ean bezala erregela monastikotik bere bosgarren kapitulua baliatzen du. Beste behin *Liber Iudiciorum*-a erabiltzen da kanon bat egiteko. Azkenik jatorri ezezaguneko testuek kanonen %15 bat osatzen dute. Aipatzekoa da katalogo penitentzialaren amaieran kommutazio penitentzialen lista bat kokatzen dela. Orokorrean *Silense*-a *Vigilanum*-a baino aberatsagoa eta osoagoa da.

Siloseko penitentzialaren datari dagokionean *Codex Vigilanus* eta *Codex Aemilianensis* ez bezala *Silense*-a ez dago dataturik. Honek diziplina desberdineko espezialistek gai honen inguruan bat etortzen ez diren iritziak planteatzea ekarri du. Espezialista gehienek *Silense*-aren data X. mendeko bigarren erdian kokatzen dute Ramon Menéndez Pidal-en autoritatean oinarritzen direlako. Hark Siloseko glosetan zentratu zuen bere ikerketa eta kodizearen data X. mendeko bigarren erdian kokatzen zuen beste bi historiagile eta paleografok eskuizkribua X. mendea baino geroagokoa ezin zela izan adierazten zutelako.<sup>20</sup> Tesi hau baliogabetzeko Bezler-ek hainbat adibide baliatzen ditu. Garbietenarikoa penitentzian *imperator* hitza erregea izendatzeko erabiltzean datza. Leongo hainbat erregek titulu hau baliatuko dute, haien artean Fernando I.a, Alfonso VI.a edota Alfonso VII.a. Errege hauek XI. eta XII. mendekoak izanik kronologia aldatzen da. Hortaz aparte kommutazio penitentzian aipatzen diren zenbait unitate monetariok Bezler *Silense*-a 1060-1065 urteen artekoa dela hausnartzera eramaten dute.<sup>21</sup>

---

<sup>18</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 10. orr.

<sup>19</sup> *Ibidem*, 12. orr.

<sup>20</sup> *Ibidem*, 17. orr.

<sup>21</sup> *Ibidem*, 24. orr.

### 3.3. Kordobako penitentziala edo *Cordubense*

Kordobako penitentziala Kordobako Alvaroren obren eskuizkribu bakarreko 178r eta 196r folioetan kokatzen da. Penitentzial honen *incipit* edo hasieran penitentzialaren autoretza Gregorio aita santuari egozten zaio. Errekurtso hau penitentzialari autoritate itxura bat emateko erabilia izan ohi zen.

*Silense*-an eta *Vigilanum*-ean ez bezala, *Cordubense*-an hitzaurre bat aurkitzen dugu. Hitzaurre hau sei zatitan banatzen da. Lehenengo zatian gorputzaren medikuntza arimen medikuntzarekin konparatzen da. Bigarren goan bekatuen barkamena lortzeko jardunen lista bat daukagu.<sup>22</sup> Hirugarrenengo zatian arimari eta sazerdoteei buruz kontsiderazio orokorrak egiten dira: sazerdoteak sinestunen osasun espirituala bermatu behar du eta haiei penitentzia zentzutasunez aplikatu behar die. Laugarrenean tarifa penitentzialak, kommutazioak eta barau egiteko periodo ofizialak aipatzen dira. Bosgarren zatian konfessoreari penitentzia arduraz eta zuhurtziaz aplikatzeko aholkuak egiten zaizkio. Seigarren eta azkeneko zatian *Ordo Confitentium*-az dihardu, hau da, penitentzia liturgiaren bitartez administratzeko gurtzan oinarritutako bilgunea. Hitzaurrea eta gero kanonen katalogo bat dator. Hau sarreran formula batez barneratzen dute kapitulazio batekin batera: “*Incipit iudicius penitente, de gula et ebrietate, de vomitum et fornicatione, de furtum et periurium, de conversationes et de diversis causis*”.<sup>23</sup> Kapitulazio hau lausoa eta osatugabea da gerora dagoen katalogo guztiko edukia ez duelako islatzen. Penitentzial honetako 177 kanonak hamabi taldetan banatzen dira.<sup>24</sup> Kaos eta desordena honen jatorria *Cordubense*-a penitentzial konposatu bat izatearen aukeran oinarritzen da, hots, beste penitentzialetako zatiak biltzen dituen penitentziala.

---

<sup>22</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 27. orr. : “*Prima ...est remissio quam bapuzamur in aqua..., karitatis adfectus, elemosinarum fructus, perfusio lacrimarum, criminum confessio, afflictio cordis et corporis, emendatio morum hoc est abrenuntiatio vitiorum, intercessio sanctorum, misericordia (et) fidei meritum, confessio et salus aliorum, indulgentia et remissionem et passio martirii*”.

<sup>23</sup> *Ibidem*, 27. orr.

<sup>24</sup> *Ibidem*, 28. orr. : “*(ébriété, vomissement, gloutonnerie), de sacrificium, de vomitum, de alio penitentiale, ne omnes operetur in dominico die, de periurio et mendacio seu falso testimonio, Incipit de usura et cupiditate et avaritia qui ospites non recipiunt et qui mandata evangelica non impleverit, de alio penitentiale; Incipit de ira et tristitia, de odium, maledictum, detractionem et invidia, de obserbatione bapuzami, de ebrietate et alia*”.

Koherentzia eza da nagusi: izenburu errepikatuak, bekatu berdina tratatzen duten zatiak, izenburu falta, etab.

Kordobako penitentzialaren iturriei dagokienez lau desberdintzen dira: beste liburu penitentzialak, *Hispana*, liturgia mozarabiarra eta jatorri ezezaguneko testuak. Beste liburu penitentzialen kasuan *Silense*-an eta *Vigilanum*-ean ez bezala oinarrizko penitentziala *Excarpus Cummeani* izan ordez Reimseko penitentziala edo *Remense*-a da nagusi. Kanonen %64ak Reimseko penitentzial hau iturburu izango luke. *Cordubense*-aren lehen editoreek *Excarpus Cummeani*-tik ere elaboratua izan zela uste zuten.<sup>25</sup> Hain zuzen ere *Remense*-a *Excarpus Cummeani*-ren 850. urteko berrikusketa bat da eta horregatik hainbesteko antzekotasunak dituzte. *Remense*-az aparte Merseburgeko penitentziala ere aipa daiteke eragin bezala. *Hispana*-ren kasuan kanonen %13ak iturri honetan dauka bere jatorria eta *Silense*-an ez bezala katalogoaren bukaeran pilaturik aurkitzen dira.<sup>26</sup> Liturgia mozarabiarrak, aldiz, ez du aztarna garbirik utzi penitentzial honetan eta zeharkako aipamenen bidez suma dezakegu haren presentzia. Jatorri ezezaguneko testuek kanonen %17 osatzen dute eta zenbaitek jatorri ezezaguneko kanon multzoak osatzen dituzte. Orokorki nahiz eta jatorri ezberdineko zatien batuketa bat eman *Cordubense*-a hiru penitentzialetatik osoena da hitzaurrea, *remisiones*-ak eta *Ordo Confitendum*-a dituelako.

Kordobako penitentzialari dagokionez Kordobako Alvaroren kodex hau ez dago dataturik. Lehen X. mendeko kopia bat zela uste zen.<sup>27</sup> Gaur egun kodex hau hiru zatitan banatzen dute espezialistek: lehenengo zatia lehenengo foliotik 164.era doa eta X. mendean zehar egin dago, bigarrenkoa 165. foliotik 207.era doa, penitentziala du bere baitan eta erreinu astur-leondarreko lekuren batetan X. mendeko amaieran egin zela ematen du, hirugarrenkoa eta azkena 208. foliotik 221.era doa eta XI. mendean idatzia izan zen. Kommutazio penitentzialetan aipatzen diren txanpon batzuei esker penitentziala XI. mendeko lehen erdian koka dezakegu numerarioa garai hartan Galizian erabiltzen zena baita.<sup>28</sup>

---

<sup>25</sup> Vázquez de Parga, L. eta Pérez de Urbel, J. (1943). “Un nuevo penitencial español”, *Anuario De Historia Del Derecho Español*, (14), 11. orr.

<sup>26</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 29-30. orr.

<sup>27</sup> Vázquez de Parga, L. eta Pérez de Urbel, J. (1943). “Un nuevo penitencial español...”, 10. orr.

<sup>28</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 33. orr.

### 3.4. Penitentzial hispanikoen arteko erlazioa

Lehen aipatu dugun moduan *Silense*-a eta *Vigilanum*-a penitentzial beretik eratortzen dira: *Excarpsus Cummeani*-a. *Cordubense*-a, aldiz, *Excarpsus Cummeani*-rekin ahaidetasuna daukan batetik dator: Reimseko penitentziala edo *Remense*. Jatorri geografikoari dagokionez hirurek jatorri komun bat daukate: Penintsula Iberikoko iparraldea. Hiruretatik zaharrena *Vigilanum*-a izango zen (850 inguru) eta berriena *Silense*-a litzateke, 1060-1065. urtera aldera eginikoa, baldin eta Bezler-en tesiak oker ez badaude.<sup>29</sup>

Vigilaren eta Siloseko penitentzialen arteko erlazioari dagokionean oso nabaria da: bien arteko kanonen konkordantzia %90ekoa baino handiagoa da. Francisco Romero Otazoren aburuz *Vigilanum*-a *Silense*-aren iturri zuzena izango litzateke.<sup>30</sup> Kordobako penitentzialaren eta beste bien arteko erlazioa, berriz, urrutikoa izango litzateke. Hiruren arteko antzekotasunak iturrien gertutasunean datzate. Oro har esan daiteke haien ahaidetasuna urrutikoa dela.<sup>31</sup>

## 4. Goi Erdi Aroko jokabide sexualen presentzia Penitentzial hispanikoetan

### 4.1. Liburu penitentzialak sexualitatea ikertzeko baliabide moduan

Penitentzialek garaiko errealitatea noraino islatzen duten zalantzan jartzen da ikertzaile askoren artean. Pierre J. Payer-en aburuz penitentzialak apaizen ministerio pastoralean erabiltzen ziren eta jendeak harreman sexualetan zer egiten zuen islatzen dute. Zenbait erregulazioen iraunkortasunak, maileguan hartutako zatiek, aurreko kanonetan egindako aldaketek eta gehikuntza berriek liburu penitentzialak bizirik zeuden dokumentuak zirela eta helburu praktikoetarako erabiltzen zirela frogatzen dute Payer-en ustez. Bederatzigarren mendean liburu penitentzialen inguruan eman ziren gomendio

---

<sup>29</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 35. orr.

<sup>30</sup> Romero Otazo, F. (1928). *El Penitencial Silense: trabajo leído en la apertura del curso académico de 1928 a 1929 en el Seminario Conciliar de Madrid*. Imprenta de A. Sáenz, Madrid, 57-59. orr.

<sup>31</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 38. orr.

eta jazarpenek ere frogatuko lukete haien erabilpena Payer-en ustetan.<sup>32</sup> Cyrille Vogel-ek antzerako planteamendu bat ere plazaratzen du: haren ustez lan juridiko eta legalak edota instrukziozko eta natura didaktikoko obrak izan baino, eguneroko praktika konfesionalerako baliatzen ziren.<sup>33</sup> Alor honen inguruan Brundage bezalako autoreek bere dimentsio espiritual eta erlijiosoaz gain dimentsio juridiko bat ere egozten diote penitentzialen bidez bekatuak aitortzeari:

La confesión no sólo representaba un consejo espiritual y personal, sino también contaba como acto casi jurídico: el penitente reconocía sus hechos culpables al confesor, quien juzgaba su gravedad y, a la luz de su conocimiento de las circunstancias (agrandado, de ser necesario, por la interrogación complementaria del penitente), pronunciaba juicio en forma de un régimen prescrito de penitencia. En forma muy similar a una sentencia penal, la penitencia incluía a la vez la reparación por los errores pasados y la modificación de la conducta futura.<sup>34</sup>

Hala ere zenbait kanonek bizitza errealeko testuingurua islatzen dutela errefusatzeko duten autoreak ere badaude. Ludwig Bieler-ek irlandar jatorriko penitentzialetan agertzen diren intzestuez eta sodomiaz hitz egiten duenean zera adierazten du: seguru dagoela erreferentzia horien frekuentziak eta ekintza lizunen espezifikazio zehatzek errealitatearekin zerikusi gutxi daukatela.<sup>35</sup> Payer adierazpen honen aurka agertzen da, adieraziz mendeetan zehar praktika horiek erregulatzeko preskripzioak egon baziren jarduera horiek garaian praktikatzeko zirela esan nahiko lukeela.<sup>36</sup>

Puntu honen inguruan Bezler-ek beste arazo bat planteatzen du: legegilearen ikuspuntua bakarrik antzeman daitekeela. Haren esanetan ez gara inoiz ziur egongo falta horiek benetan eginak izan ziren ala ez edota penitentzialek bakarrik jarraitu beharreko

---

<sup>32</sup> Payer, P. J. (1984). *Sex and the penitentials: the development of a sexual code, 550-1150*. University of Toronto Press, Toronto. 12. orr.

<sup>33</sup> Vogel, C. eta Frantzen, A.J. (1978). *Les "Libri ..."*, 31. orr.

<sup>34</sup> Brundage, J. A. (2000). *La ley, el sexo y la sociedad cristiana en la Europa medieval*. Fondo de Cultura Económica, México, 172-173. orr.

<sup>35</sup> Bieler, L. (1966). *The Irish Penitentials : Their Religious and Social Background*. Studia Patristica vol. 18 (Part II), Berlin, 339. orr.

<sup>36</sup> Payer, P. J. (1984). *Sex and the penitentials...*, 13 .orr.

erregela markatzen duten.<sup>37</sup> Lehenago aipatu bezala Payer eta Vogel penitentzialen aplikazio errearen alde agertzen dira eta gure iritzi pertsonala proposamen honen aldekoa izango litzateke. Gure ustez liburu penitentzialak aplikatzen zirenen froga penitentziak konmutatzeko formulatan aurkituko zen. Liburu penitentzialetan agertzen diren zigorrak askotan zigortuarentzat gehiegizkoak egiten zirenez trukaketen bitartez penitentziako urteak beste zigor bigunago batzuekin (ad. salmoak abestea, baraualdiak egitea, zigorradak jasatea, dirua pobreei ematea, ...) ordezkatzeko ziren. Honek bi gauza adierazten dizkigu: zigorrak oro har ez zirela liburu penitentzialek ezarritako moduan betetzen eta ordezkatzeko daudenez penitentzialak jendearen egoera erreara moldatu zirela, hots, egunerokotasunean aplikazio bat zeukatela.

## 4.2. Penitentzial hispanikoetan islatzen diren jarrera sexualak

Beste penitentzial askotan bezala geure hiru penitentzialetan bi multzo ikusten ditugu delitu sexualei dagokienean: laikoen multzoa eta elizgizonena. Gure lanean laikoen erlazio sexualak aztertuko ditugu. Laikoen delitu sexualetan ere banaketa bikoitz bat aurkitu dezakegu: senar-emazteen arteko jardueren multzoa eta ezkon loturatik kanpoko jardueren multzoa. Gure lanean hiru penitentzialetan delitu sexual hauei buruzko agertzen diren erreferentziak aipatuko eta konparatuko ditugu.

Senar-emazteen arteko erlazioen kasuan haien erlazioak arauturik zeuden eta legedi eklesiastikoaren ikuspuntutik ezin zituzten egin nahi zuten eran eta nahi zuten momentuan. Erlazio sexualen alorrean senar-emazteen artean debekatuta zegoen homosexualen erara egitea (Siloseko penitentzialeko 134. kanonean<sup>38</sup> *ut sodomitico more* esaldiarekin adierazia edota *Vigilantium*-eko 73. kanonekoa: “*Si quis vir nubserit cum uxore sua tergo...*”<sup>39</sup>). Hortaz aparte senar-emazteek ezin zituzten izan erlazio sexualak nahi zuten egunean. *Silense* penitentzialak martiren festetan, igandeetan, Pazkoko igandean eta “berrogeialdiko egunetan” (*in diebus quadragesimis*, Bezler-en esanetan Garizumari dagozkionak) erlazio sexualak izatea debekatzen du.<sup>40</sup> Kontinentzia sexuala baraualdiko beste garaietan ere errespetatua izan behar bazen

---

<sup>37</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 314. orr.

<sup>38</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentiaalia franciae, italiae et hispaniae saeculi VIII-XI. Tomus II: Paenitentiaalia hispaniae*. Brepols, Turnhout, 29. orr.

<sup>39</sup> *Ibidem*, 10. orr.

<sup>40</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 160. orr.

abstinentzia sexuala luzatzen zen. *Silense*-aren autorearen aburuz baraualdiko bederatzi denboraldi egongo lirateke: Garizuma, Igokunde eguna eta geroko hiru eguneko baraualdia, bi eguneko baraua Mendekoste egunaren eta San Joan Bataiatzailearen festaren egunaren artean, hiru eguneko baraua iraileko letanietan San Ziprianoren festa baino lehenago, bi eguneko baraua iraileko letanien eta San Martinen letanien artean, hiru eguneko baraua San Martinen letanietan, hiru eguneko baraua San Martinen letanien eta Eguberri egunaren artean, urtarrileko kalendetako baraua eta urtarrileko kalendetatik Garizumaren hasierara bi eguneko baraua.<sup>41</sup> *Cordubense*-aren partetik debekatutako egunak igandea, azteazkena, ostirala, ospe handiko festa egunak (Eguberri eguna, Epifania, Pazkoa, Igokundea, Mendekostea, San Joan Bataiatzailea, Andra Mariaren festa, hamabi apostoluen festak, San Martin eta tokiko santuaren festa) eta “berrogeialdi ofizialak” (*legitimis quadragesimis*, Bezler-en aburuz Garizuma, Eguberri eguna baino lehenagoko berrogei egunak eta Mendekoste geroko berrogei egunak) izango lirateke.<sup>42</sup>

Kontinentzia sexualaren alorrean elizak zehazturiko egunez gain emakumearen egoera fisiologikoari erreparatzen dioten kontinentzia garaiak ere badaude. Hiru penitentzial hispanikoen artean Silosekoa emakumea hilekoarekin dagonean erlazio sexualak izatea debekatzen duen bakarra da. Horretaz gain Silosekoa ere da bakarra emakumea erditzera doanean (*in temporibus monstruose vel parturitionis*<sup>43</sup>) sexu erlazioak debekatzen. Bestetik, bai Silosekoa eta baita Kordobakoak haurdunaldi garaian erlazio sexualak izatea debekatzen dute eta zazpi hilabeteko kontinentzia ezartzen dute, hots, haurdunaldiko hirugarren hilabetearen hasieratik aurrera.<sup>44</sup> Debeku honen urratzeak hiru urteko penitentzia bat bete behar izatea zekarren. Azkenik kontinentzia aplikatzeko beste arrazoi bat bazegoen ere: antzutasuna. Senar-emazteei erlazioak izatea debekatzen zaie emakumea antzua bada. Ikus daitekeenez penitentzialek bakarrik emakumearen antzutasuna aurreikusten zuten (Vigilaren penitentzialeko 79. kanona adibidez: “*Cuius uxor est sterilis, ambo et ille et illa in continentiam sint.*”<sup>45</sup>). Bestalde antzeman dezakegunez Elizaren pentsaeran erlazio sexuak izateko arrazoi bakar bat zeukaten:

<sup>41</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 161-162. orr.

<sup>42</sup> *Ibidem*, 165-166. orr.

<sup>43</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia franciae...*, 30. orr. 139. kanona.

<sup>44</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 169-170. orr.

<sup>45</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia franciae...*, 10. orr.

ugalketa eta horregatik antzutasun kasuetan erlazio sexuak bere legitimotasun osoa galduko lukete.

Senar-emazteen erlazioetatik kanpo adulteriozko jardunak izango genituzke. Liburu penitentzialek emakumearen adulterioa gizonarena baino grabeagozat hartzen dute eta atentzio gehiago eskaintzen diote, zorrotzago epaituz. Testuek zehazten dutenez emakume adulteriozko baten kasuan senarrak emaztea utzi eta beste bat har dezake, kontrako kasuan emakumea hori egin ezinean aurkitzen delarik (“*Si qua uxor fornicatur, liceat eam viro dimitti et aliam accipere*”<sup>46</sup>). Emakume adulteriozko baten kasuan senarraren baimenarekin jarduten bada senarra betirako eskumikatua izango da. Berrito komunioa jasotzeko bere emaztea utzi beharko du. Hau eginik ez da hilko komunioa hartu gabe baina hamar urteko eskumikatze bat jasan beharko du *Silense*-ko 166. kanonaren aburuz.<sup>47</sup> Kordubensearen kasuan Bezler-en aburuz ingurugiro musulman baten influentziarekin seguruenik emakume adulteriozko baten heriotza zigorrera kondenatzen da (“*Et christiana habens maritum <si> fornicauerit cum alieno, rea erit mortis*”<sup>48</sup>). *Silense*-aren kasuan emakumea damutzen bada komunioa egiteko onartua izango da baldin eta hamar urteko eskumikatze eta penitentzia bat jasaten baditu.<sup>49</sup> Aurretik aipatu bezala senarrari aplikatutako zigorrak leunagoak dira (adibidez, *Cordubense*-an emakumea hiltzera kondenatzen duten bitartean senar adulteriozko baten kasuan eskumikatzen dute, Eguberrian eta Pazkoan komunioa har dezakeelarik).<sup>50</sup> Horretaz gain senarraren kasuan ezbeharrezko desleialtasunaren eta fornikazio adulteriozko porrokatuaren artean bereizketa egiten da santzioak ezartzerako orduan eta eskumikatua izan arren damutzen bazen zigorra kentzen zitzaion.<sup>51</sup>

Intzestuzko erlazioei dagokienean geure liburu penitentzialek atentzio partikular bat eskaintzen diete. Intzestuzko ari direnean Silosekoa izan ezik besteek intzestuzko erlazio sexualak eta senideen arteko ezkontzak nahasten dituzte. *Silense*-aren kasuan bi delituak banandurik agertzen dira: lehena *De diversis fornicationibus* bederatzigarren kapitulu

---

<sup>46</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia franciae...*, 30. orr. 145. kanona.

<sup>47</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 172. orr.

<sup>48</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia franciae...*, 68. orr.

<sup>49</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 173. orr.

<sup>50</sup> *Ibidem*, 174. orr.

<sup>51</sup> *Ibidem*, 175. orr.



ageri den bitartean bigarregoa *De incestis coniunctionibus* hamargarren kapituluari kokatzen da.<sup>52</sup> Amarekin gauzatutako intzestuan penitentzialen formulazioan semeak gauzaturiko akzio bezala ageri da eta berak bakarrik penitentzia jasaten duela ematen du (“*Qui cum matre sua fornicauerit, quadraginta annos peniteat in pane et aqua. Et non accedat ad manducandum aut ad vibendum, nisi per dies dominicos*”<sup>53</sup>). Alabarekin gauzatutako intzestuan *Vigilanum*-ak amarekin izandako erlazioei ezarritako penitentzia bera ezartzen die, hots, bizi osorako zehaztu gabeko penitentzia bat.<sup>54</sup> Anai-arreben arteko intzestuen kasuan *Cordubense*-an aita-alaben arteko intzestuekin batera ezarrita dago eta biak monastegi batetara betirako bizitzera kondenatzen ditu (“*Si quis autem pater cum filia, aut frater cum sorore se comiscuerint, retrudendi sunt in monasterium in penitentia quanto vixerint. Et qui hec adimplere noluerint, pars illorum sit cum Iuda traditore*”<sup>55</sup>). Alabaordearen kasuan *Silense*-aren autorearen ikuspuntutik amarekin edota arrebarekin izandako erlazioen baliokide da eta 15 urteko penitentzia batekin kondenatzen du.<sup>56</sup> *Vigilanum*-ean eta *Cordubense*-an beste kasu batzuk aurki ditzakegu. Bezler-ek dioenaren arabera penitentzial hauetan nahiz eta erlazio sexual bezala aurkeztu senideen arteko ezkon-lotura debekatuak ere antzeman daitezke. Kasu komunak errainarekin eta ilobekin dira.<sup>57</sup> Kasu isolatuei dagokienean *Vigilanum*-ak amakidearen eta amaordearen kasuak aipatzen dituen bitartean *Cordubense*-an semeak aitaren ohaidearekin izandako erlazioak seinalatzen ditu.<sup>58</sup> Honekin guztiarekin ondoriozta dezakeguna zera da: intzestuen lista hau ez bada egiten ziren erlazioenak behintzat egin zitezkeenak ziren. Intzestuzko erlazio hauen muina zelula familiarrean oinarritzen den heinean kanon hauen aplikazio maila handitzen da. Horretaz gain kanon hauen bidez talde familiarren bi mota antzeman ditzakegu Bezler-en esanetan: *Silense*-ko familia bikotekideek eta haien seme-alabek osatzen duten bitartean *Cordubense*-ko

<sup>52</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 177. orr.

<sup>53</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 66. orr. 151. kanona.

<sup>54</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 178. orr. Vigilaren penitentzialeko zortzigarren kanona izango litzateke: “*Si quis cum matre aut cum filis fornicaberit, usque ad finem vita suam peniteat*”.

<sup>55</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 64. orr, 127. kanona.

<sup>56</sup> *Ibidem*, 34. orr. 175-177 kanonak: “*Qui cum matre sua fornicatur, XV annos peniteat; ita cum sorore, et preuigna*”.

<sup>57</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 179. orr. Kasu hauek Vigilaren penitentzialeko 63. kanonean (“*relicta fratris; cum consubrina, cum filia auunculi*”) eta Kordobako penitentzialaren 168. kanonean (“*cum uxore fratri<i>s sui, aut cum subrina*”) aurkitu ditzakegu.

<sup>58</sup> *Ibidem*, 180-181. orr. 57. oin oharrean aipatutako kanonetan aurkitzen dira erlazio hauek.

kasuan familia zabalagoa da, ia klan familiar moduko bat eratzeraino (aita, semeak eta hauen anaiak haien emazte, ohaide eta seme-alabekin).<sup>59</sup>

Senar-emazteen arteko erlazio sexualetatik kanpo geratzen diren jarduerekin jarraituz esklaboekin izandako erlazioak ditugu. Hiru penitentzialek egoera hau islatzen digute: *Vigilantium*-ak eta *Silense*-ak *Excursus Cummeani*-tik eratorritako testu bat baliatzen dute eta bere esklaboaz abusatzen duen jaunari urte bateko penitentzia egitera eta esklaboa saltzera behartzen dute. Gainera, esklaboa haurdun egon ezkerok jaunak askatu behar zuen.<sup>60</sup> *Cordubense*-aren kasuan islatzen den errealitatea desberdina da: bortxatutako esklaboa kristaua da. Horretaz gain zigor zorrotz bat exijitzen zaio delituaren egileari: zazpi urteko penitentzia eskumikatzeko eukaristikoarekin larriagotua.<sup>61</sup> Kasu honetan Bezler-en ustez Antzinako penitentiaren eta ingurune ez homogeneo baten aurrean aurkitzen gara.<sup>62</sup> Atal honetan *Liber Iudiciorum*-arekiko desberdintasun nabari bat azpimarratu beharko genuke. Legegilea emakume libre eta esklabo baten arteko edota gizon libre bateko beste baten esklaboarekin izandako erlazioetan zentratzen da eta ez jaun baten eta bere esklaboaren arteko erlazio sexualetan. Emakume askea bere esklaboarekin oheratzen bada erreta hiltzera kondenatzen du legedi bisigotiarrek.<sup>63</sup>

Legezko ez diren erlazioekin jarraituz emakume ez kristauekin izandako erlazioak topatzen ditugu. Gure hiruro penitentzialek aho batez kristau baten erlazio sexualak judutarrekin edota paganoekin (kasu honetan musulmanak) kondenatzen dituzte. Preskripzio hau antzinakoa da eta 306ko Elvirako kontzilioko 78. kanonean jada trataturik dago.<sup>64</sup> *Silense*-ko tarifa berritasunaren eta antzinako tradizioaren arteko nahasketa bat da: erruduna 15 urteko penitentzia egitera kondenatzen dute eta honi bost

---

<sup>59</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 182. orr.

<sup>60</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia franciae...*, 10. orr. Vigilaren penitentzialeko 78. kanona: “*Si quis intrat ad ancillam suam et venundat, I annum peniteat. Si genuerit filium, liberet eam*”.

<sup>61</sup> *Ibidem*, 68.orr. 169. kanona: “*Qui uero cum ancilla christiana fornicauerit, VII annos peniteat et si <c>comunicet*”.

<sup>62</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 183. orr.

<sup>63</sup> Ikus aurreko azpi oina.

<sup>64</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 183-184. orr.

urteko eskumikatze bat gehitzen zaio.<sup>65</sup> *Silense*-aren zorrotzasunak garaiko kezkekin bat egiten du Bezler-en ikuspuntutik: tradizio hispano-bisigotiarra berriro baieztatzea eta gizartearen erreforma morala gauzatzea erreinua infidelaren aurka berrantolatzen ari zen garai batean.<sup>66</sup>

Honi jarraiki jokaera sexual arautuetatik at geratzen den jarduera sexual bat dugu: hildako batekiko erlazioak alegia. Gaur egun nekrofilia bezala ezagutzen dugunaren zantzuak *Silense*-ko 133. kanonean eta *Vigilanum*-eko 81. kanonean aurkitu ditzakegu.<sup>67</sup> Bietan bekamenezko tarifa bezala bizi osorako penitentzia ezartzen da amarekin edo alabarekin egindako intzestuekin bezala. Beraz, nekrofilia bekatuen artean grabeenetarikoen artean kokatzen zen.

Debekatutako jarrera sexuarekin jarraituz izter arteko sexua aurkitzen dugu. Jokabide sexual honi buruzko aipamenak Siloseko penitentzian eta Vigilarnean aurkitu ditzakegu. Bietan bi urteko penitentziako zigorra ezartzen zaio errudunari: “*Qui in femoribus fornicatur, II annos peniteat*”.<sup>68</sup> Bezler-ek dioenaren arabera konpilatzaile hispanikoen tarifa gogorrena hartu zuten bekatu hau epaitzeko *Excarpsus Cummeani*-an urte bateko penitentzia ezartzen zelako (bi urtekoa delitua errepikatzean bakarrik ezartzen zen).<sup>69</sup>

Debekatutako erlazioen artean prostituzioaren kasua da agertzen zaigun hurrengoa. Hiru penitentzial hispanikoetatik gai hau aipatzen bakarra Silosekoa da. Hark ezarritako kondena eskumikatze definitiboarena da: “*Mulier que lenocinium exercuerit, id est que corpus suum alieno vendiderit, nec in finem accipere debet communionem*”.<sup>70</sup> Testu honetan Siloseko penitentziala ekoiztean zegoen izpiritu orokorra garbiki islatzen da

---

<sup>65</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 30. orr. 136. kanona: “*Si quis fidelis cum iudea uel gentili fuerit meatus, XV annos peniteat et per quinquennium arceatur a communionem*”. Ikus dezakegunez Erdi Aroan *gentil* terminoa musulmanak izendatzeko ere erabiltzen zen.

<sup>66</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 184. orr.

<sup>67</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 10. orr. Vigilaren penitentzialeko 81. kanona: “*Si quis vir cum muliere mortua fornicaberit, ita usque ad finem vite sue peniteat*”.

<sup>68</sup> *Ibidem*, 28. orr. Siloseko penitentzialeko 113. kanona. Vigilaren penitentzialeko 72. kanonean “*inter femora*” esapidea erabiltzen da.

<sup>69</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 185. orr.

<sup>70</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 32. orr. 163. kanona.

Bezler-en aburuz: orden moral eta publiko batetara itzultzea tradizio zurrunenaren eta beneragarrienaren balioen bitartez.<sup>71</sup>

Biolentzia sexualaren kasuan bi delitu aurkitzen ditugu: bahiketa eta bortxaketa. Bahiketaren kasuarekin hasiz berriz *Silense*-a da penitentzial bakarra hiru hispanikoetatik gai hau jorratzen. 152. eta 153. kanonetan aipatzen da gai hau eta bahitutakoaren egoera legalaren arabera zigorra areagotzen edo beheratzen da. Bahitutako emakumea ezkondurik badago anatemara kondenatzen du bahitzailea.<sup>72</sup> Bahitua alarguna edo birjina (emakume gaztea) bada bahitzaileari eskumikazioa ezartzen zaio: “*Raptores uiduarum uel uirginum ab ecclesie communione pellantur*”.<sup>73</sup> 152. kanona 451ko Kaltzedoniako kontzilioko 27. kanonean oinarritzen den bitartean 153. kanona dekretal batetan funtsatzen da. Dekretal honen errealitatea ez da penitentzialaren garaikoa han aipatzen diren alargunak eta birjinak Antzinako penitentziako orden eklesiastikoei erreferentzia egiten dietelako.<sup>74</sup> *Liber Iudiciorum*-ean delitu hau honela epaitzen da: neska gazte ezkondu bat bahitu duena esklabo bezala saldua izan daiteke eta harekin erlazio sexualak izan bazituen exekutatu zezaketen. Bahitutako emakumea birjina edo alarguna bazen bere ondasunen erdia bahituari eman behar zion, zigorkatze publikoak jasan edota esklabo bilakatu.<sup>75</sup> Payer-ek aipatu moduan *raptus* hitza ez zegoen lehen momentu batetik erlazio sexuarekin lotuta baizik eta emakumezkoaren bortxazko bahiketarekin.<sup>76</sup> Bortxaketaren kasuan ere Siloseko penitentziala da bakarra gaia lantzen. Dirudienez autoreak ekoiztutako kanon bat izan daiteke ez baita iturri ezagunetan inspiratzen. Kasu honetan bahiketetan baino zigor leunago bat ezartzen dio errudunari: hamar urteko penitentzia.<sup>77</sup> Gainera, bortxatutako emakumeak bere buruaz beste egiten duela aipatzen da. Beraz, kanon honek eragiten duen inpresioa bortxaketak bahiketak baino pisu gutxiago duela da eta bortxatutako

---

<sup>71</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 186.orr.

<sup>72</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia lia franciae...*, 31. orr. 152. kanona: “*Si quislibet uxores sibi rapuerit, anathematizetur*”.

<sup>73</sup> Ikus 72. azpi oina. 153. kanona.

<sup>74</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 186. orr.

<sup>75</sup> *Ibidem*, 187. orr.

<sup>76</sup> Payer, P. J. (1984). *Sex and the penitentials...*, 60. orr.

<sup>77</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia lia franciae...*, 25. orr. 91. kanona: “*Si quis quamlibet mulierem violaberit, ob inde illa necem sibi intulerit, violator X annos peniteat*”.

emakumea suizidatu behar dela delitu bezala kontsideratzeko. Hortaz gure elizgizonaren ikuspuntutik bortxaketa bat baino homizidio bat izango zen Bezler-en aburuz.<sup>78</sup>

Debekatutako jarrera sexualen artean aipatu gabe gelditu ezin zen beste bat homosexualitatearena da. Penitentzial hispaniko bakoitzean praktika honen aipamenak aurkitzen ditugu eta penitentzial batetik beste batera tarifak aldatzen dira. *Vigilantium*-aren kasuan beste delitu sexual batzuekin elkarturik agertzen da eta hamabost urteko penitentzia batera kondenatzen du erruduna.<sup>79</sup> *Silense*-ak elizgizonen eta laikoen artean bereizten du zigorra jartzerako orduan eta azken hauei hamar urteko penitentzia ezartzen die: “*Si quis fornicatur sicut sodomite fecerunt, si episcopus est XX annos peniteat. Presbyter, XV, diaconus XII, (...) Laicus X annos peniteat*”.<sup>80</sup> *Silense*-ak ere emakumeen arteko erlazio homosexualak aurreikusten ditu baina hauei hiru urteko penitentzia ezartzen die.<sup>81</sup> Badirudi Siloseko penitentzialaren egilearen ikuspuntutik gizonezkoen jarrera homosexualak emakumezkoenak baino grabeagoak direla. *Cordubense*-ak, aldiz, ez ditu helduak kontuak hartzen baizik eta umeak (*puer*) eta hauek hiru urteko penitentzia batetara 300 zigorradarekin kondenatzen ditu: “*Si puer cum alio fornicauerit, CCC flagella suscipia<n>t, et III annos penitea<n>t*”.<sup>82</sup> *Liber Iudiciorum*-aren kasuan bakarrik gizonezkoen arteko erlazio homosexualak kontutan hartzen dira eta zorrozki erreprimitzen dira: errudunak zikiratzen dituzte eta lekuko apezpikuaren eskuetan uzten dituzte toki batetan giltzapetuak izan daitezten eta han penitentzia egin dezaten. Delitu hau dibortziorako kausatzat hartzen zen.<sup>83</sup>

Debekatutako jarreraren artean ere masturbazioarena ere aurkitzen dugu. Garaiko hizkuntzan pertsona batek bere buruarekin sexua egingo balu bezala planteatzen da masturbazioa: “*Si quis cum propriis membris fornicatur, I annum peniteat*”.<sup>84</sup>

---

<sup>78</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 189. orr.

<sup>79</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 9. orr. 63. kanona: “*Si quis cum animalibus uel cum sodomitico more, cum conmatre sua, cum sua sorore, cum preuigna (...), fornicaberit, XV annos peniteat*”.

<sup>80</sup> *Ibidem*, 28. orr. 110. kanona.

<sup>81</sup> *Ibidem*, 33. orr. 170. kanona: “*Si mulier cum muliere fornicatur, III annos peniteat*”.

<sup>82</sup> *Ibidem*, 66. orr. 143. kanona.

<sup>83</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 189. orr.

<sup>84</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 29. orr. 126. kanona.

*Cordubense*-aren kasua aipatzekoa da bere kanon batetan emakumeen masturbazioaren aipu bat plazaratzen duelako.<sup>85</sup> Kanon hau *Remense*-tik datorren bitartean Siloseko penitentzialaren kanonaren kasuan ez da iturri ezagunik ezagutzen.<sup>86</sup>

Ezohiko jarduera sexuarekin jarraituz bestialismoa izango genuke. Zoofilia bezala ezagunagoa animaliekin erlazio sexualak izatean datza. Delitu hau orokorrean zorrozki zigortzen dute penitentzialek. Horretaz aparte egilearen kondizioa kontutan hartzeaz gain (heldua ala umea, ezkongea ala ezkondua) zein animaliarekin ibili den ere kontutan edukitzen da.<sup>87</sup> *Vigilandum*-ean aurretik aipatutako 63. kanonean beste delitu batzuekin batera bestialitatea orokorrean (“*cum animalibus*”) eta emakumeak gauzaturikoa (“*mulier cum iumento*”) aipatzen dira.<sup>88</sup> *Cordubense*-an bi kasu ezberdin planteatzen dira: alde batetik lau hankako animaliekin egindako bestialitatea hamaika urtetako penitentzia zigorrarekin<sup>89</sup> eta bestetik komunioa jasotako ume batek abere batekin egindakoa hirurogeita hamar eguneko penitentziarekin: “*Puer qui sacrificium comunicat et peccat cum pecude, LXX dies peniteat*”.<sup>90</sup> *Silense*-aren kasuan egilearen adinak penitentiaren zorrozatasuna baldintzatzen du: hogeitau urte baino gutxiago baditu hamabost urteko penitentzia egin beharko du baina hogeitau urte baino gehiago baditu eta ezkondata badago hogeitau urtez egin beharko du penitentzia.<sup>91</sup> Zigorra larriagotzen duen faktore bat animali mota izango da 113. kanonaren esanetan: “*Si cum pecoribus minutis, amplius peniteat, id est XXV annos peniteat. Et post bicesimum annum communionem accipiat*”.<sup>92</sup> Ikus daitekeenez zigorraldia hogeitau bost urtera igotzen da, penitentea hauetatik hogeitau komunioa hartu gabe egon behar zelarik. Beraz, aukeratutako abereak ere larriagotzen du zigorra.

---

<sup>85</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia franciae...*, 66. orr. 154. kanona: “*Si mulier cum se ipsa coytum <h>abet et intuerit virum alienum in concupiscentia, III annos peniteat*”.

<sup>86</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 189. orr.

<sup>87</sup> *Ibidem*, 189. orr.

<sup>88</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia franciae...*, 9. orr. 63. kanona.

<sup>89</sup> *Ibidem*, 66. orr. 149. kanona: “*Si quis cum quadrupedia comuenit, XI annos peniteat*”.

<sup>90</sup> *Ibidem*, 62 orr. 109. kanona.

<sup>91</sup> *Ibidem*, 28. orr. 111. kanona: “*Si quis ante XX annos cum animalibus peccaberit, XV annos peniteat*” eta 112. kanona: “*Si post XX annos, habens uxorem, XX annos peniteat*”.

<sup>92</sup> Ikus 91. oin oharra.

Berez jarduera sexual bat izan ez arren poluzioa delitu sexualen artean agertzen zaigu. Delitu hau espermaren kanporaketan datza eta kasu ia guztietan elizgizonei erreferentzia egiten die. *Cordubense*-ko kanon bakar batetan aipatzen da laiko bat delitu hau burutzen: “*Si quis christianus cogitatione semen fuderit, XX dies peniteat*”.<sup>93</sup> Testu hau zenbait penitentzialetan aurkitu dezakegu, *Remense*-an edota *Excarpsus Cummeani*-an adibidez baina kasu guztietan elizgizon baten erreferentziaren aurrean aurkitzen gara.<sup>94</sup> Beraz, Kordobako penitentzialaren konpilatzaile batek normalean elizgizonei ezartzen zaien kanon bat laikoei aplikatzea erabaki zuen.

Azkenik haurren sexualitatearen eremua aipatuko dugu. Penitentzial hispanikoetan autoritate eklesiastikoei haurren sexualitatea erreprimitzeko zuten kezka islatuta dago. Zenbait kanon gai honetara eskainiak daude, gehiengoa *Cordubense*-an aurkituz. Delitu honen kasuistika *De ludis puerilibus* atalean aurkezten zaigu.

Lehenik eta behin haien arteko elkarrizketa pribatuak ekidin nahi dira.<sup>95</sup> Testu honen jatorria monastegi inguru batekoa dela uste du Bezler-ek eta monastegian bertan hezitako elizgizon gazteei zuzendua dagoela pentsatzen du.<sup>96</sup> Debeku honen funtsa gerora agertzen diren kanonak ikusita haurren arteko joko sexualak ekiditea da.

Bigarrenik bi haurren arteko masturbazioa aipatzen da. Kasu honetan zigorra hirurogeita hamar egunera igotzen da bekatu hau komunikatu baino lehen konfesatu badute: “*Pueri, ante XII annos se inuicem <manibus> quoinquinantes et confessi fuerint antequam comunicent, LXX dies peniteant*”.<sup>97</sup> Jokaera hau errepikatzen badute zigorra laurogei egunera igotzen da<sup>98</sup> eta bekatuan berriro erortzen badira berriro elkar ikustea debekatzen zaie eta zazpi urteko penitentzia bat egotzen zaie.<sup>99</sup> *Silense*-aren kasuan delitu honen aurrean egilea bigunago agertzen da eta berrogei eguneko

---

<sup>93</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentiaalia franciae...*, 66. orr. 145. kanona.

<sup>94</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 191. orr.

<sup>95</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentiaalia franciae...*, 62. orr. 105. kanona: “*Nunc de ludis puerilibus priorum statuta <patrum> nostros ponamus; pueri soli sermocinantes, XII dies peniteant*”.

<sup>96</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 191. orr.

<sup>97</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentiaalia franciae...*, 62. orr. 110. kanona.

<sup>98</sup> *Ibidem*, 62. orr. 111. kanona: “*Si iterauerint post penitentiam, LXXX dies peniteant*”.

<sup>99</sup> *Ibidem*, 62. orr. 112. kanona: “*Si uero frequenter, separentur et VII annos peniteant*”.

penitentzia egotzen die errudunei: “*Pueri adulescentes se inbicem coinquinantes, XL dies peniteant*”.<sup>100</sup>

Hirugarrenik haurrek gauzaturiko izter arteko sexua daukagu. Testu bakar batetan, Siloseko penitentzialeko 125. kanonean konkretuki helduek gauzatu beharrean nerabeek gauzatzen dute jarrera sexual hau: “(*Pueri adulescentes*) *Si inter femora fornicans, II annos peniteant*”.<sup>101</sup> Helduentzako tarifa penitentzial bera denez (2 urte) adina ez dela zirkunstantzia aringarri bat hausnartzen du Bezler-ek.<sup>102</sup>

Laugarrenik ezkondu aurreko erlazio sexualak aipatzen dizkigute. Kasu batzuetan ezkondu baino lehen nerabeek erlazio sexualak izaten zituzten eta penitentzialek jardun hau zigortzen dute. *Silense*-aren kasuan delitu hau bost urteko penitentzia batekin epaitzen da: “*Si puer fornicatur in domo parentum, uel ubiquuumque, priusquam ad rectum coniugium ueniat, V annos peniteat*”.<sup>103</sup> *Vigilanum*-aren kasuan antzeko kanon batean hiru urteko penitentzia ezartzen dio errudunari berrehun zigorrada gehituz.<sup>104</sup> Zigor hauen zorrotasunean autoritate eklesiastikoen ezkondu aurretik kastitatean mantentzearen beharra ohituretara zabaldu nahi zutela igarri ahal da. Bi penitentzialetan delitua gauzatzen den lekuak garrantzi gutxi du baina Bezler-en aburuz baldintza hau batzuetan zirkunstantzia larrigarria edo aringarria izan zitekeen eta gurasoen etxean egitea beste lekuetan baino zorrotzago zigortu ohi zen.<sup>105</sup>

Bukatzeko laztanen eta ukitzeen alorra daukagu. Ezkondu aurreko edozein jardun sexual erreprimitzeko nahiarekin autoritate eklesiastikoen aurretiko jardunak ere debekatzen dituzte, hots, haien artean flirtean ibiltzea. Jarduera hau bekatuzko jarduera handiagoa edo txikiagoa izan zitekeen eta *Cordubense*-ak alor honetan hiru gradu

---

<sup>100</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 29. orr. 124. kanona.

<sup>101</sup> *Ibidem*, 29. orr. 125. kanona.

<sup>102</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 192. orr.

<sup>103</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia franciae...*, 33. orr. 169. kanona.

<sup>104</sup> *Ibidem*, 11. orr. 88. kanona: “*Si puer fornicaberit in domo parenti uel ubiquuumque priusquam ad recto coniugio uenirit, CC flagella suscipiat et III annos peniteat*”.

<sup>105</sup> Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels...*, 192. orr.



bereizten ditu: musu errugabea<sup>106</sup> hogeita bi eguneko penitentziarekin garbitua, musu seduzitzailea espermaren emisiorik gabe<sup>107</sup> hogeita hamahiru egunekin pekatua eta esperma emisioa dakarren musua besarkadarik gabe hirurogeita hamar eguneko penitentziarekin barkatua: “*Cum inquinamiento, autem sine complexu, LXX dies penitea<n>t*”.<sup>108</sup> Penitentzial honetako *De ludis puerilibus* atalean ikus dezakegunez amodiozko jarrera honen fase eta etapa ezberdinak bereizten dira bekatuaren seriotasuna kalibratzeko eta zigorrak ezartzeko.

## 5. Ondorioak

Sarreran ikusi dugun moduan, arlo sexualean Goi Erdi Aroko gizartea funtsezko printzipio batek gidatzen zuen: sexu harremanak senar-emazteen artean bakarrik ziren onargarriak eta harreman hauen xedea ugalketa baino ezin izan zitekeen.<sup>109</sup> Instrukzio pastoralak eta penitentzia pribatua tresna eraginkorrek izan ziren portamolde sexualaren eredu jakin bat ezartzerakoan eta hau liburu penitentzialen bidez transmititu eta zabaldu zen Payer-en aburuz.<sup>110</sup> Penitentzialen eginbeharra Payer-en hitzetan debekatutako jardueren talde handi horiek zehaztea eta multzoetan bekatuak hurrenkera moduko batetan sailkatzea izan zen.<sup>111</sup>

Penitentzia gauzatzeko bidea, lanean zehar ikusi dugun moduan, penitentzia tarifatuak eskaintzen zuena izan zen. MacNeill eta Gamer-en ustez fededunek elizgizonengana jotzen zuten beraien bekatuak aitortzeko eta elizgizonek penitentzialak baliatuz haien bekatuei zegokien penitentzia ezartzen zien.<sup>112</sup> Hala eta guztiz ere lehendabizi aipatu

---

<sup>106</sup> Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentia franciae...*, 62. orr, 106. kanona: “*Osculum non simpliciter facientes, XXII dies penitea<n>t*”.

<sup>107</sup> *Ibidem*, 62. orr, 107. kanona: “*Illecebrosum osculum sine inquinamiento, XXXIII dies penitea<n>t*”.

<sup>108</sup> *Ibidem*, 62. orr, 108. kanona.

<sup>109</sup> Payer, P. J. (1984). *Sex and the penitentials...*, 115. orr.

<sup>110</sup> Ikus 109. azpi oina.

<sup>111</sup> Payer, P. J. (1984). *Sex and the penitentials...*, 116. orr.

<sup>112</sup> MacNeill, J. T., eta Gamer, H. M. (1990). *Medieval handbooks of penance: A translation of the principal libri penitentiales and selections from related documents*. Columbia University Press, New York, 3. orr.

bezala penitentziaren jardunaren inguruko jakintzan oraindik zenbait iluntasun daude eta aplikazio konkretua eztabaidarako gaia da.

Azkenik penitentzialak sexualitatea eta jokabide sexualak aztertzeko erabiltzearen inguruan emandako arazoez mintzatu nahi nuke. Payer-en esanetan tentuz ibili behar da penitentzialetatik sexuaren inguruko konklusioak ateratzean eta horregatik metodologia egoki bat baliatu behar da.<sup>113</sup> Ez dago zalantzarik penitentzialak mendeetan zehar sexualitatearen inguruan egindako diskurtsoaren isla direla eta informazio ugari eskaini ditzaketela. Hala ere Payer-en aburuz penitentzialetan sexuaren inguruan agertutako edukiak sailkatzea erraza bada ere, hauekin zer egin jakitea ez da hain sinplea eta normalean serie kronologikoak gauzatzea zaila da penitentzialen tradizioaren inguruko jakintzaren hutsuneengatik.<sup>114</sup>

---

<sup>113</sup> Payer, J. P. (2013). "Confession and the study of sex in the Middle Ages" In Bullough, V. L. eta Brundage, J. (ed). *Handbook of medieval sexuality*. Routledge, New York, 8. orr.

<sup>114</sup> Ikus 113. azpi oina.

## 6. Erreferentzia bibliografikoak

### ITURRIAK

Bezler, F. eta Körntgen, L. (1998). *Paenitentialia francae, italiae et hispaniae saeculi VIII-XI. Tomus II: Paenitentialia hispaniae*. Brepols, Turnhout.

### BIBLIOGRAFIA

Bezler, F. (1994). *Les pénitentiels espagnols : Contribution à l'étude de la civilisation de l'Espagne chrétienne du haut moyen age*. Aschendorff, Münster.

Bieler, L. (1966). *The Irish Penitentials : Their Religious and Social Background*. Studia Patristica vol. 18 (Part II), Berlin.

Brundage, J. A. (2000). *La ley, el sexo y la sociedad cristiana en la Europa medieval*. Fondo de Cultura Económica, México.

MacNeill, J. T., eta Gamer, H. M. (1990). *Medieval handbooks of penance: A translation of the principal libri penitentiales and selections from related documents*. Columbia University Press, New York.

Payer, P. J. (1984). *Sex and the penitentials: the development of a sexual code, 550-1150*. University of Toronto Press, Toronto.

Payer, P. J. (2013). "Confession and the study of sex in the Middle Ages" In Bullough, V. L. eta Brundage, J. (ed). *Handbook of medieval sexuality*. Routledge, New York.

Romero Otazo, F. (1928). *El Penitencial Silense: trabajo leído en la apertura del curso académico de 1928 a 1929 en el Seminario Conciliar de Madrid*. Imprenta de A. Sáenz, Madrid.

Vázquez de Parga, L. eta Pérez de Urbel, J. (1943). "Un nuevo penitencial español", *Anuario De Historia Del Derecho Español*, (14), 5-32. orr.

Vogel, C. eta Frantzen, A. J. (1978). *Les "libri paenitentiales"*. Brepols, Turnhout.